

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

ZUZEN+ PROGRAMA

Ikerketa- eta irakaskuntza-
zereginei eraginkortasunez
aurre egiteko hizkuntza-
prestakuntzarako
programa

www.ehu.eus

ZUZEN+ PROGRAMA

**Ikerketa- eta irakaskuntza-zereaginei
eraginkortasunez aurre egiteko
hizkuntza-prestakuntzarako programa**

**Erabiltzaile Gaitua
C1+ maila**

**Hizkuntzen ikaskuntzarako,
irakaskuntzarako eta ebaluaziorako Europako
Erreferentzia Markoaren arabera**

Zer da ZUZEN+

ZUZEN+ programaren bidez UPV/EHUko irakasle zein ikertzaileei hizkuntza-prestakuntza osagarria eskaini nahi zaie, haien burua presta dezaten jakintza-arlo espezializatuetaiko zeregin akademikoaren eskakizunei modu egokian erantzun ahal izan diezaieten Hizkuntzen Europako Erreferentzia Markoan hiztun gaituari aurreikusten zaion mailan.

Era berean, unibertsitateen RED-U sareak Irakasleen Garapen Akademikorako Markoaren (MDAD) bigarren mailako helburuekin ere bat egiten du¹. Horrela bada, unibertsitateko akreditazio-, ebaluazio—zein kontratazio-prozesuetan eskuarki aplikatzen diren protokoloekin bateragarri dira ZUZEN+ ikastaroaren bidez egiaztatzen diren merezimenduak

Nori zuzentzen zaio ZUZEN+?

UPV/EHUko ikertzaile- zein irakasle-lanetan diharduten kideei zuzendutako prestakuntza-ekintza da ZUZEN+ programa:

- Haien burua zeregin akademikoetarako gaitu nahi duten doktoregaiak
- Karrera akademikoaren hastapenetan dauden irakasleak
- Hizkuntza-gaitasuna sendotu nahi duten irakasle elebidunak
- Euskaraz lan egiten esperientzia luzea duten irakasle zein ikertzaileak
- Euskaraz lan egin ez duten irakasleak, etorkizunean euskaraz aritzeko interesa izan dezaketenak.

Zein da ZUZEN+ programaren xedea?

Ahoz zein idatziz testu argiak eta zehatzak ekoizteko gaitasuna indartzea, arreta berezia jarritz, irakaskuntza- zein ikerkuntza-lanaren testuinguruan norberak izan ditzakeen zalantzei, egin ohi dituen akatsei, eta, oro har, irakaskuntza- zein ikerketa-lanean eroso eta seguru jarduteko indartu beharreko alderdiei.

1 Ikus: <https://red-u.org/marco-de-desarrollo-academico-docente-mdad/>

Zer gaitasun landuko dira programa honetan?

ZUZEN+ programan, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Markoan hiztun gaituari aurreikusten zaizkion gaitasunak landuko dira, betiere, unibertsitateko zeregin profesionalek dituzten eskakizunei egokituta: komunikazio akademikoa inguratzen duten testuinguruko aldagaiak aintzat hartzea; testuak genero akademikoen eskakizunen arabera planifikatu eta egituratzea; ideiak zehaztasunez adieraztea eta erlazionatzea; lexiko-hautuak egitean, hartzaileen aditutasun-maila kontuan hartzea; hizkuntza-baliabide funtsezkoenak testu zainduak eskatzen duten kontrol-mailarekin erabiltzea; eta abar.

Nolako ikaskuntza-emaitezak bilatzen dira?

ZUZEN+ programan xedea C1 maila sendotzea da. Hori horrela, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Markoaren C1 mailan aurreikusten diren gaitasunak hartuko dira ardatz, betiere, laneko zereginei arreta berezia jarritz. Horrela bada, ikastaroaren amaieran, parte-hartzaileak gai izango dira:

- Lagunarteko, komunikabideetako eta laneko testuak (elkarrizketak, eztabaidak, azalpenak) zehaztasunez ulertu eta horien berri besteei emateko.
- Lagunarteko elkarreraginean, lan-esparruan eta komunikabideetan ideiak eta iritziak jartotasunez eta eraginkortasunez adierazteko
- Ongi egituratutako eta osatutako testu argiak eta zehatzak idazteko, ideia nagusiak eta osagarriak bereiziz, eta, oro har, xedea lortzeko estrategia egokiak aukeratuz.
- Haien ikuspuntua luze eta zabal adierazteko, ideia osagarriak eta adibide egokiak emanez (HEOC, 27. orrialdea; **C1 maila, hiztun gaitua**)

Laneko zereginei dagokienez, ikastaroaren amaieran parte hartzaileak gai izango dira, besteak beste, eginkizun hauen testuinguruan eraginkortasunez komunikatzeko: Curriculum Vitae egokia idaztea eta ahoz azaltzea; adituak ez direnei jakintza- edo ikerketa-arloaren inguruko azalpenak ematea; norberaren arloarekin zerikusia dute auziei eta zalantzei buruz ikuspegi pertsonala azaltzea; hedabideekin harremanetan, gizartearentzat jakingarriak izan daitezkeen argibideak ematea; biltzar akademikoetarako ekarpen laburrak egitea, eta abar.

Horren bidez, Unibertsitateko Irakasleen Garapen Akademikoaren Markoan aurreikusten den lehen mailako profilarekin lerratzen diren zenbait gaitasun ere bermatu nahi dira. Hona hemen soslai horren deskribapena, UPV/EHUko Irakasleen eta Ikertzaileen Hizkuntza Prestakuntzarako EHP-2020 Planean jasotakoaren arabera.

I Atala: Curriculum	II. Atala: Prozesuak	III. Atala: Oinarriak
Irakasleak diskurtso akademikoaren eredu egokia eskaintzen die ikasleei, bai banatzen dituen materialen bidez, eta baita haren ahozko jardunaren bitartez ere.	Dokumentu zuzen eta zehatzak erabiltzen ditu irakasleak irakaskuntza-jardueraren euskarri gisa (berak sortuak zein beste iturrietatik eskuratuak), betiere, euskara estandarren irizpidearen arabera moldatuak. Zabalkunde-mailako argitalpen zientifiko egokiak egiten ditu. Ahoz, erregistro zaindua erabiltzen du. Azalpen magistral argiak egiten ditu. Eguneroko ohiko harremanetan, egoki erantzuten die ikasleen zalantzei.	Ondo menderatzen ditu hizkera akademiko zainduaren arauak eta irizpideak: funtsezko.

Nola egituratzen da programa?

Programak egitura modularra izango du. Modulu bakoitzean zeregin komunikatibo bat hartuko da ardatz, eta horren inguruan garatuko dira ikaskuntza-ataza guztiak. Moduluek 5-8 asteko iraupena izango dute. Modulu guztietan orotariko komunikazio-jarduerak landuko dira: entzutezko ulermena, irakurriaren ulermena, elkarreragineko gaitasuna, bitartekotzarako gaitasuna, ahozko ekoizpena eta ekoizpen idatzia. Horrez gain, hizkuntza-baliabideen gaineko kontrola lantzeko zeharkako modulu bat ere aurreikusten da programa honetan.

Nolako metodologia erabiliko da?

ZUZEN+ programan ikaskuntzarako metodologia parte-hartzaile, kooperatibo eta aktiboa erabiliko da, testu errealean lanetan, ikasleen arteko elkarreraginean eta ikasleen testu-ekoizpenetan oinarritutakoa. Ikaskuntza-zeregin funtsezkoenak ikasgelan bertan egingo dira. Alabaina, horrez gain, nor bere aldetik modu autonomoan egiteko jarduerak ere proposatuko dira; azken hauek, gehienak, aukerakoak. Irakasleek dinamizatzaile eta gidari-lana egingo dute; era berean, parte-hartzaileen jarraipenaz arduratuko dira. Arreta berezia jarriko zaie ikasgelan proposatutako jarduerari aurre egitean arte-hartzaileek agertzen dituzten zalantzei eta zailtasunei.

Nolako ebaluazio-sistema erabiliko da?

Ebaluazioa, etengabea eta pertsonalizatua izango da. Ikastaroaren hasieran eta amaieran diagnosi-probak egingo dira, abiapuntuko egoera zehazteko, eta parte-hartzaile bakoitzaren aurrerabidea ikusgarri egiteko. Prozesuan zehar, bestalde, etengabeko feedbacka eskainiko da ikasgelan bertan; taldekoa zein banakoa. Horrez gain, modulu bakoitzaren amaieran parte hartzaileek bi zeregin labur egin beharko dituzte. Zeregin horiei buruzko feedback pertsonalizatua jasoko dute, betiere, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Markoak hartzun gaituari aurreikusten diren mailaren arabera.

Nola egiaztatuko dute parte-hartzaileek helburuak erdietsi izana?

Parte-hartzaileek «portfolio» bat osatuko dute moduluz modulu. Portfolio horretan haien gaitasunen ebidentziak jasoko dituzte parte-hartzaileek modulu bakoitzaren amaieran. Hauek dira portfoliorako aurreikusten diren egitekoak:

MODULUA	KOMUNIKAZIO IDATZIA	AHOZKO KOMUNIKAZIOA
Biografia akademiko eta profesionala: CVa, gaitasunak eta proiektuak	Mezu elektronikoen baten bidez, lan-erantzun bati erantzun	Bideo-curriculum bat grabatu
Jakintza-arloa irudikatzen: aditu ez direnei argibideak ematen	Ikerketa-proiektu baten, esku-liburu baten edo irakasgai baten inguruko laburpena	Artikulu akademiko baten edukia azaltzeko zabalkunde-podcasts
Ikerketa- eta irakaskuntza-gaiak: komunikazio akademikoa	Wikipediarako artikulu laburra	Hiru.com webguneko baliabide didaktikoen mediatekarako bideoa
Zientziak, teknologia, arteak, gizarte eta gizakia: ikuspegiak, balioak eta pentsamendu kritikoa	Gai bati buruzko hainbat ikuspegi aztertzen dituen artikulua edo saio-lana	Gai bati buruzko hainbat ikuspegi agertu dituen mahai-inguru akademiko baten kronika
Unibertsitateko gizartera: hedabideekin harremanetan	BERRIAK egindako dei bati erantzunez, gaurkotasuneko gai baten inguruko artikulua	EUSKADI IRRATIAK egindako gonbidapenari erantzunez, gai bati buruzko elkarrizketa
Eman eta zabal ezazu: komunikazio espezializatua	Kongresu baterako ponentzia baten proposamena (laburpena)	Ikerketa-proiektu baten, esku-liburu baten edo irakasgai baten inguruko aurkezpena
ZEHARKAKO MODULUA	Irakaslearekin adostutako jarduerak	

Ikastaroko irakasleek balioetsiko dituzte ebidentzia horiek, eta portfolioaren ebaluazio-agirian jasoko dute haien irizpena (GAI/EZ GAI). Agiri horretan bi atal bereiziko dira: ahozko komunikazioari dagozkion lorpenak eta komunikazio idatziari dagozkionak. Programa arrakastaz gainditutzat jotzeko, eskatutako ebidentzien %75ek bete beharko dituzte mailari dagozkion eskakizunak.

Zein izango da programaren arduraduna?

Programa eskaini eta aurrera eramateko arduraduna UPV/EHUK lehiaketa publiko bidez hautatutako euskaltegi homologatua izango da.

Euskaltegiko zuzendaritza arduratuko da taldearen kudeaketa administratiboaz eta euskaltegiko ikasketa-arduradunak koordinatuko ditu programan parte hartzen duten irakasleak eta ebaluazio-protokoloak.

Programaren kudeaketa akademiko orokorra, berriz, Euskara Zerbitzuko Irakasleen eta Ikertzaileen Prestakuntzarako Arduradunak egingo du. Berak izango du amaierako egiaztagiriak kudeatu eta balioesteko ardura ere.

Nolako finantzaketa du programa honek?

Ikastaroa HABEk homologatutako euskaltegi baten bidez eskaintzen da. Beraz, HABEk ezarritako baldintzak beteko ditu ikastaroak. Parte-hartzaileei matrikularen zenbatekoa, berriz, Euskara Zerbitzuak hartzen du bere gain.

Horrenbestez, parte-hartzaileek ezin izango dute bestelako diru-laguntzarik eskuratu ez erakunde publikoetatik, eta ezta erakunde pribatuaren aldetik ere.

Zein dira parte-hartzaileen konpromisoak?

Programa honetan erakunde publikoek ahalegin ekonomiko esangarria egiten dute. Horrek eskatzen du parte-hartzaileek programa ondo aprobetxatzeko konpromisoa hartzea.

- **Asistentzia:** Programa hau aurrez aurrekoa da. Hortaz, ezinbesteko da erregulartasunez joatea eskola-saioetara. Irakasleek egunero jasoko dute asistentzia, eta hiru hilabetearen behin bidaliko dituzte asistentzia-txostenak Euskara Zerbitzura. Jakina da parte hartzaileek konpromiso akademikoak izango dituztela une jakinetan. Hala denean, idatziz eman beharko diete horren berri ikastaroko arduradunei, posta elektronikoz mezu bat bidalita.
- **Puntualtasuna:** Eskola-saioak eraginkorrak izan daitezen, oso garrantzitsua da garaiz hasi, eta, ahal den heinean, parte-hartzaile guztiak edo gehienak saio osoan egotea bertan. Batzuetan ezinezko izango da garaiz heltzea, edo lehenago joan beharra gertatuko da. Halakoetan, taldearen martxari ez eragiteko ahalegina egingo da eskatzen da.

- **Zereginak:** Parte-hartzaileek zereginetan modu aktiboan inplikatzeari espero da. Era berean, modulu amaierako egitekoak arretaz egitea espero da.

Nolako aitortza du ZUZEN+ programak?

UPV/EHUren Euskara Zerbitzuak C1+ ziurtagiria emango die parte hartzaileei, UPV/EHUren deialdietan, behintzat, ezagutza izango duena.

Ziurtagiriak bi atal izango ditu: ahozko komunikazioari dagokion atala eta komunikazio idatziari dagokiona. Parte-hartzaileek bi atalak akreditatu ahal izango dituzte, edota horietako bat bakarrik.

Zer baldintza bete behar dira ZUZEN+ aitortza eskuratzeko?

- **Hasierako diagnostika:** ikasturte hasierako proban parte hartzea
- **Parte-hartzea:** % 75etik gorako asistentzia (kanpoko egonaldiak kontuan hartu gabe)
- **Ahalegina:** Portfolioko zereginen % 80 garaiz eta moduan egin izana.
- **Emaitzak:**
 - Ebaluazio positiboa duten 4 ebidentzia, egiaztatu nahi den ataleko (ahozkoa/idatzia)
 - Ebaluazio positiboa ikastaroaren amaierako proban

IKASTAROAREN DISEINUA

ZUZEN+ programak diseinu modulara malguta du, aukera ematen duena programazioa eta edukia taldearen premien eta lehentasunen arabera egokitzeko.

- Ikastaroaren muina oinarritzko 5 moduluk osatzen dute.
- Horiez gain, zeharkako modulu bat ere aurreikusi da, ikasle bakoitzaren premiei erantzuteko.
- Azkenik, bada modulu bat (seigarrena), C2 mailari begirako diagnostika egiteko erabiliko litzatekeena, betiere, egoki ikusten bada, oinarritzko moduluen helburuen bete-tze-mailaren eta egutegiaren arabera.

Moduluen hurrenkera, iraupena, diseinua eta programazioa, taldearen ezaugarrien eta parte-hartzaileen interesen arabera moldatuko dira.

1. Modulua

Biografia akademiko eta profesionala: CVA, gaitasunak eta proiektuak

Azalpen laburra: modulu honetan, laneko zereginekin lotuta nor bere buruaren berri emateko erabiltzen dituen testuak izango dira langai. Zehazki, ikaskuntza- eta lan-esperientzien berri euskaraz emateko gaitasuna hobetu nahi da. Horretarako behar diren baliabideei jarriko zaie arreta, hala nola, mota horretako testu jasoak eraikitzeke tresna eta estrategiei. Bitarteko horien artean, lexikoak toki berezia izango du lehen modulu honetan; izan ere, modulu honetan egingo den lexiko-bildumarekin oinarria jarriko da, parte-hartzaile bakoitzak aurre egin ahal izan diezaien hurrengo moduluetan bere espezialitatea ardatz hartuta egin beharko dituen beste zeregin komunikatiboak.

GAITASUNAK

Komunikazio idatzia

- Biografiak, eta horietan emandako xehetasun guztiak ere, ongi ulertzea.
- Norberaren arloko gaiari buruzko ikasliburuak, kontsulta-liburuak (entziklopediak, hiztegiak, txostenak...) ongi ulertzea.
- Gertuko ezagun baten edota pertsonaia publiko baten biografia idaztea herri-aldizkarian zein erakunde bateko argitalpenean.

Ahozko komunikazioa

- Norberaren arloko gaiaren inguruan, ezagunek nahiz ezezagunek egindako azalpenak ulertzea, ideia orokorrak nahiz xehetasun eta ñabardurak ere jasota.
- Esparru akademikoan, ezagunei nahiz ezezagunei, gai orokorreari buruzko azalpenak egitea, esperientzien, gertaeren eta pertsonen berri emanda.

Langaiak:

- Curriculum Vitae
- Biografia
- Mezu elektronikoa
- Aurkezpen-gutuna
- Elkarrizketa biografikoa
- Lan-elkarrizketa formala

Ikaskuntza-lorpenen ebidentziak: azken egitekoak

Komunikazio idatzia: Mezu elektroniko baten bidez, lan-eskaintza bati erantzun

Ahozko komunikazioa: Bideo-curriculum bat grabatu

2. Modulua

Jakintza-arloa irudikatzen: aditu ez direnei argibideak ematen

Azalpen laburra: modulu honetan, nork bere espezialitatearen berri ematea izango da egiteko nagusia. Modulu honek aukera eskainiko die parte hartzaileei haien espezialitateari buruz hitz egiteko ezinbesteko dituen hitzen bilduma osatzen jarraitzeko. Horrekin batera, kalitatezko jardun akademikorako beharrezkoak diren bi gaitasun funtsezko hobetu nahi dira: espezialitate horretan aditu ez direnei azalpen labur eta zehatzak eskaintzen asmatzea (informazioa modu argian ematea) eta azalpen horietan argibideak emateko lagungarriak diren baliabide diskurtsiboak txertatzea (adibideak, parafrasiak...).

GAITASUNAK

Komunikazio idatzia

- Erakundeekiko harremanetan edo esparru akademikoan lantzen diren gaien inguruko txostenak ulertzea.
- Norberaren arloko gaiari buruzko ikasliburuak, kontsulta-liburuak (entziklopediak, hiztegiak, txostenak...) ongi ulertzea.
- Zabalkunde-aldezkarri batean eta eragina sortzeko asmoz, gai ezagun bati buruzko azalpen-testua egitea, gaiari buruzko informazioa ematea xede, gaia erraz eta argi ulertzeko moduan.

Ahozko komunikazioa

- Ezagunek nahiz ezezagunek, ideia nagusiak eta bigarren mailakoak adieraziz, gai orokorreari buruz egiten dizkioten azalpenak ulertzea; esaterako, lan-bileran batean aurkeztutako egitasmo zehatz bat.
- Norberaren arloko gaiaren inguruan, ezagunek nahiz ezezagunek egindako azalpenak ulertzea, ideia orokorrak nahiz xehetasun eta ñabardurak ere jasota.
- Norberaren arloko gaiaren inguruan, ezagunei nahiz ezezagunei ondo ezagutzen den gaia aurkeztea, erraz eta argi ulertzeko moduan.

Langaiak:

- Irakaskuntza-gida edo proiektu baten txostena
- Zabalkunde-artikula
- Irakasgai/proiektu baten aurkezpena
- Zabalkunde-podasta

Ikaskuntza-lorpenen ebidentziak: azken egitekoak

Komunikazio idatzia: Ikerketa-proiektu baten, eskuliburu baten edo irakasgai baten inguruko laburpena

Ahozko komunikazioa: Artikulu akademiko baten edukia azaltzeko zabalkunde-podasta

3. Modulua

Zientziak, teknologia, arteak, gizarte eta gizakia: ikuspegiak, balioak eta pentsamendu kritikoa

Azalpen laburra: modulu honetan, nork bere espezialitateko gaiei buruzko arrazoibideak eta argudioak garatzeko baliabideak landuko dira, bereziki, balioespenak egin, eta gai baten inguruan egon daitezkeen ikuspegiak aurrez aurre jartzekoak. Horri horrela, modulu honetan arreta berezia jarriko zaie, alde batetik, diskurtsoan alderatze-eragiketak egiteko baliabideei eta, bestetik, nork bere ikuspegia adierazteko modalizazio-mekanismo eta aukera linguistikoei. Horrekin batera, parte-hartzaileek haien arloarekin lotutako lexikoa zabaltzen jarraitzeko aukera izango dute.

GAITASUNAK

Romunikazio idatzia

- Esparru akademikoko nahiz profesionaleko testu batean, egilearen iritzia eta jarrerak atzematea, baita horren asmoz eta aldarteaz jabetzeko ere, betiere gaia bere arlokoa den.
- Aldizkarietako edo komunikabideetako erreportajeak ulertzea; kasuan kasuko xehetasunak eta deskribapenak ere ongi ulertuta, bereziki, gaia orokorra edo norberaren arlokoa bada.
- Jardunaldi batean edo antzeko ingurune batean parte-hartzaileek egin dituzten ekarpen nagusiak laburtzea eta iruzkintzea, xede izanik esparru akademikoan haien berri ematea.

Ahozko komunikazioa

- Besteak konbentzitzeko asmoz, gai jakin bati buruzko ikuspegiak alderatzea, arazoak eta auziak azaltzea, eta arrazoiez eta ondorioez gogoeta egitea, betiere gaia ezaguna bada.
- Elkarreraginean, solaskideen ikuspuntuak ulertzea, eta, besteenak aintzat hartuz, nork bere iritzia adieraztea, behar denean, adostasunak eta desadostasunak adierazita.

Langaiak:

- Ikuspegiaren kontrastea eskaintzen duten erreportajeak
- Onlineko eztabaidak
- Mahai-inguruak
- Debateak

Ikaskuntza-lorpenen ebidentziak: azken egitekoak

Romunikazio idatzia: Gai bati buruzko hainbat ikuspegi aztertzen dituen artikulua edo saiolana

Ahozko komunikazioa: Gai bati buruzko hainbat ikuspegi agertu dituen mahai-inguru akademiko baten kronika

4. Modulua

Unibertsitatetik gizartera: hedabideekin harremanetan

Azalpen laburra: modulu honetan, aurreko bi moduluetan egindako lanean sakonduko da nolabait, biak uztartzeko aukera eskaintzen duen esparruaz baliatuta, alegia, nork bere burua hedabideetan irudikatuta. Testuinguru honetan, parte hartzaileak aditu gisa agertuko dira gizar-tearen aurrean eta aditu ez direnen mesedetan jardungo dute, foro publiko batean dela jendeari laguntzeko arazo jakin baten muina ulertzen, dela gizarte-arazo baten testuinguruan argudioak eskaintzen, dela gertaera jakin baten interpretazioa errazten, eta abar. Modulu honek aukera eskainiko du, besteak beste, nork bere alorreko lexikoa bi mailatan erabiltzen trebatzeko: lexiko espezializatua eta lexiko orokorra.

GAITASUNAK

Komunikazio idatzia

- Hedabideetan gai orokorren inguruan aldeko eta kontrako iritzien bidez argudiatutakoak ulertzea.
- Toki publikoetan (Interneten, administrazio harremanetan, hedabideetan...) gai orokorrei buruzko argudioak ematea, aldeko edo kontrako iritzia azpimarratuz, eta arrazoiak emanez.
- Egunkari edota aldizkari batean gai ezagun bati buruzko iritzi-artikulua egitea, besteak konbentzitzeko edota erantzuna ematera bultzatzeko.

Ahozko komunikazioa

- Hedabideetan aditu batek emandako azalpenak ulertzea, baldin eta gaiak ezagunak badira. Halaber, ñabardurez eta xehetasunez ere ohartzea.
- Jendaurrean gai orokorrei buruzko azalpenak eta iritzia ematea eta bat-batean galderei erantzutea, ideia osagarriak ongi egituratuz eta adibide egokiak emanez.
- Hedabide publiko batean elkarrizketatua izatea eta elkarrizketak egitea, ideiak jaritasunez eta zehaztasunez adierazita.

Edukiak:

- Gizarte-sareetako testuak eta elkarreraginak
- Elkarrizketa digitalak
- Hedabideetako elkarrizketa sakonak
- Adituaren ikuspuntua eskatzen duten artikulua eta erreportajeak

Ikaskuntza-lorpenen ebidentziak: azken egitekoak

Komunikazio idatzia: BERRIAK egindako dei bati erantzunez, gaurkotasuneko gai baten inguruko artikulua

Ahozko komunikazioa: EUSKADI IRRATIAK egindako gonbidapenari erantzunez, gai bati buruzko elkarrizketa

5. Modulua

Ikerketa- eta irakaskuntza-gaiak: komunikazio akademikoa

Azalpen laburra: modulu honetan, komunikazio akademikoaren beste zutabe garrantzitsu batean jarriko da arreta: instrukzioen, jarraibideen eta prozeduren azalpenerako ezinbesteko diren estrategia diskurtsiboak osatzen dute zutabe hori. Izan ere, diskurtso-mota honek toki zabala hartzen du zeregin akademikoaren egunerokoan (adibidez, irakasle-ikasle elkarreraginean), eta arreta berezia eskatzen du eraginkorra izango bada, alegia, mezuaren hartzaileek emandako jarraibideak ondo ulertuko badituzte, eta espero diren ondorioak lortuko badira. Zeregin komunikatibo hauek ahalegin berezia eskatzen dute zehaztasunaren aldetik. Horrenbestez, modulu honetan, parte hartzaileek aukera izango dute haien ideiak zehaztasun handiz adierazteko estrategiak lantzeko, hau da, mezu argiak egiteko baliabide diskurtsibo, sintaktiko eta lexikoak ikertzeko.

GAITASUNAK

Komunikazio idatzia

- Esparru akademikoan edo lanekoan prozedura jakin baten azalpenak zehatz ulertzea.
- Esparru akademikoan edo lanekoan gai bati buruzko proposamenak eta eskariak egitea, besteak ohartarazi eta erantzuna ematera bultzatzeko asmoz.

Ahozko komunikazioa

- Lan-esparruan nahiz akademikoan egitasmo edota zeregin bat egin ahal izateko ematen dizkioten prozedura-azalpenak zehatz ulertzea; adibidez, enpresan abian jarriko den proiektu berri baten inguruko azalpenak.
- Ezagunei nahiz ezezagunei zeregin baten prozedura zehatza azaltzea, batez ere zereginak edo gaiak ezagunak baditu. Adibidez, makina baten azalpen teknikoa.

Langaiak:

- Eskemak, gaitegiak eta aurkibideak
- Artikulu entziklopedikoak
- Instrukzioak, jarraibideak, prozedurak
- Bideo-tutorialak

Ikaskuntza-lorpenen ebidentziak: azken egitekoak

Komunikazio idatzia: Wikipediarako artikulu laburra

Ahozko komunikazioa: Hiru.com webguneko baliabide didaktikoen mediatekarako bideoa

6. Modulua

Eman eta zabal ezazu: komunikazio espezializatua

Azalpen laburra: Modulu honetan, kongresu, biltzar eta antzeko jardunaldietan sortzen diren behar komunikatiboak euskaraz zuzen eta egoki asetzeko ahaleginera hurbildu nahi da. Horretarako, aurreko moduluetan era isolatuagoan landu diren testu-motak eta diskurtsoak berrikusi eta konbinatuta erabiltzeko saiakerak egiteko abagunea eskaini nahi da. Modulu hau ibilbidearen azken jomuga da, eta C2 mailaren atarira eraman nahi ditu parte-hartzaileak, espezialisten arteko komunikazio-egoera baten testuinguruan. Lehen hurbilpena besterik ez da izango, noski, baina erreferentzia egokiak eskainiko dizkie parte-hartzaileei erabiltzaile adituaren maila eskuratzeari begira (C2) dituzten ahalbideen eta erronkei buruz. Bestela esanda, modulu honek ZUZEN+ programaren ibilbidea itxi, eta C2 mailari begirako diagnosia egitea du helburu. Modulu hau badaezpadakoa da; alegia, taldearen ezaugarrien arabera erabakiko da egitea ala ez egitea; eta, egitekotan, parte-hartzaileen profilaren arabera erabakiko da denbora eta ahalegina eskaini aurreikusitako jardueretan.

GAITASUNAK

Komunikazio idatzia

- Aldizkari edo foro espezializatu baten bere arloko testu konplexuen hari nagusia ulertzea.
- Bere arloko kongresu espezializatu baterako proposamena idaztea (laburpena), kongresuko antolatzaileek ezarritako baldintzen arabera.
- Norberaren arloko kontzeptu bat, prozedura bat, gertakari bat, prozedura bat, ikerketa bat edo ideia bat garatzen duen posterra, infografia edo diapositiba-sorta egitea.

Ahozko komunikazioa

- Hitzaldi baten atarian, aurkezpen-lanak egitea: hizlari bat aurkeztea, hizlariaren ibilbidea adieraziz eta haren parte hartzea justifikatuz.
- Bere arloko gai bati buruzko hitzaldi baten edukia ulertzea eta beste norbaiti laburki azaltzea.
- Poster bat, infografia bat edo diapositiba-sorta labur bat euskarri hartuta, nork bere arloko kontzeptu bat, gertakari bat, prozedura bat, ikerketa edo ideia bat azaltzea.

Langaiak:

- Poster akademikoa
- Artikulu espezializatua
- Kongresuetako aurkezpenak
- Azalpen akademikoa

Ikaskuntza-lorpenen ebidentziak: azken egitekoak

Komunikazio idatzia: Kongresu baterako ponentzia baten proposamena (laburpena)

Ahozko komunikazioa: Ikerketa-proiektu baten, eskuliburu baten edo irakasgai baten inguruko aurkezpena

Zeharkako modulua

Komunikazio akademiko eta profesionalerako hizkuntza-baliabideak

Azalpen laburra: Modulu honetan erabiltzaile gaituak ondo menderatu beharreko hizkuntza-baliabideei eskainiko zaie berariazko arreta: baliabide diskurtsiboei, baliabide gramatikalei eta baliabide lexikoei. Dimentsio ezberdinak hartuko dira jomugan: eraginkortasun komunikatiboarena, zehaztasun semantikoarena, zuzentasun gramatikalarena, eta abar. Modulu hau zeharkakoa izango da; hau da, ikastaro osoan zehar garatuz joango da. Hori horrela, ez da modulu itxia; alegia, arian-arian sortzen diren premien arabera egokituko da. Horretarako bi irizpide hartuko dira kontuan: a) moduluz modulu ardatz bezala hartzen diren eginkizun komunikatiboen eskakizunak; b) parte-hartzaileek, talde bezala zein indibidualki, agertzen dituzten premiak.

GAITASUNAK

Komunikazio idatzia

- Oro har, zuzentasun gramatikal eta ortografiko handiko testuak ekoiztea.
- Hizkuntza-baliabideen oinarritzko erreperorioa ziurtasunez erabiltzea.
- Zuzentzaile automatikoak sistematikoki baina zuhertasunez erabiltzea.
- Hizkuntza-zalantzak modu autonomoan ebaztea, behar denean, interneteko kontsulta-tresnak erabilita.

Ahozko komunikazioa

- Oro har, ziur, lasai eta natural jardutea, norberaren alorreko gai ezagunei buruzko norabide bakarreko diskurtsoetan zein elkarreraginean.
- Ahotsa modu kontrolatuan erabiltzea, bolumen, erritmo eta doinuera egokiak erabilita.
- Hizkera estandarrean eroso jardutea, diskurtso akademiko jaso eta zainduak dituzten eskakizunak gogoan hartuta.

Langaiak:

Zuzentasun gramatikal eta ortografikoa: arauak eta gomendioak

Zehaztasun lexikoa: erregistro zainduan kontuan hartu beharreko irizpideak

Testueltasuna: testu egoki eta eraginkorrak egiteko oinarritzko baliabideak

Terminologia: erabilera orokorreko terminologia eta terminoak sortzeko lexiko-baliabideak

Baliabide teknolinguistikoak: zuzentzaile automatikoak, tresna-barrak, APPak....

Ikaskuntza-lorpenen ebidentziak: azken egitekoak

Irakaslearekin hitzartutako jarduerak.

erman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea